

azpeitianzer?

udal aldizkaria

180. zenbakia

ALOKAIRU SOZIALA ETXE PREMIA ASETZEKO

Bi azterketek erakutsi dutenez, 200 etxebizitza
inguru beharko lirateke Azpeitian



HONDAKINAK

Txip bidezko
sistema berriarekin,
%70a birziklatzea
da helburua



SOREASU

Herriko kulturaren
giltzarri izango
den eraikinaren
guneak, zehaztuta



TELEFONO INTERESGARRIAK

Zentralita	943 15 72 00
Alkatetza	943 15 71 85
Idazkaritza	943 15 71 98
Kontuhartzailetza	943 15 71 89
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Komunikazioa	943 15 79 82
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Zapo Txoko	943 15 71 61
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Suhiltzaileak	112
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63
Euskara Patronatua	943 81 45 18
Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Lapatx Zabortegia	943 15 18 75

BOTIKA TXANDAK

ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74
Abenduaren 2, 3, 5, 14, 19 eta 27

ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,
Tel.: 943 81 13 50
Abenduaren 6, 7, 12, 18, 22, 23 eta 31

BERISTAIN

Urbitarate auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49
Abenduaren 1, 13, 20, 26, 29 eta 30

EIZAGIRRE

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74
Abenduaren 4, 9, 10, 15, 21 eta 25

JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58
Urriaren 3, 13, 17, 22, 23 eta 28

ALE HONETAN ZER?

Azpeitia ezagutzen	2
Hondakinak	3
Hazparne	8
ETXEBIZITZA POLITIKA	10
Soreasu	16
Hobekuntzak	18

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Diseinua eta argazkiak:
EREGLI, Euskara eta Komunikazioa

Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

AZPEITITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85 (ALKATETZA) TELEFONOAN.

AZPEITIA EZAGUTZEN



INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ, AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU AURRERANTZEAN TARTE HONETAN. EZAGUTU AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!

ARMARRIA



Gainerako herrien antzera gure herriak ere badu armarrria.

Armarriak herrian izandako familia edo leinu garrantzitsu batekin lotzen du hiribildua, Loiolata-rrekin. Hasiera batean Loiolako etxearen armarrrian agertzen zen lapikoa; Beotibarko guduan izandako parte hartzeagatik eman zitzairen ondoren armarrrian otsoak irudikatzen eskubidea. Azpeitiko hiribilduak Loiolako etxearen armarrria hartu zuen, leinu edo familia honek herrian izandako boterearen adierazle.

HONDAKINAK

ERREFUSA ETA ORGANIKOA TXIP BIDEZ JASOTA, HONDAKINEN %70A BIRZIKLATZEA HELBURU



Lapatx zabortegia 2016ko abenduaren 1ean itxi zuten. 28 urtetan herriko, bailarako zein inguruetakoko hondakinak jaso ondoren, atea itxi zituen zabortegiak. Jazoera honen ondoren, inoiz baino garrantzitsuagoa dela birziklapena ondo egitea uste du Udalak. Hala, azken urteetan lanean aritu da %70ko birziklatze tasara iristeko helburuarekin.

2016ko apirilean egindako udalbatzak aho batez onartu zuen txip bidezko edukiontzietan jasotzeko sistema ezartzea. "Izan ere, herritar asko dira hondakinak gaika ondo bereizten dituztenak, baina Azpeitian gaikako bilketa tasa ez da iristen %40ra. Beraz, bada zerbait gaizki egiten dena", adierazi du Aitor Bereziartua zinegotziak.

Duela zenbait urte hondakinak biltzeko hainbat sistema aztertu ostean txip dun edukiontzien bidezko bilketa egitea adostu zuten Udala osatzen zuten hiru alderdiek, "ahalik eta birziklatze tasa handiena ahalbidetuko duen bilketa sistema diseinatu eta ezarriko da" esan du Bereziartuak eta tasak neurtu eta hobetzeko mekanismoak jarriko dira.


Honela, azken urteetan etorkizuneko sistema jartzeko barne lanean aritu da Azpeitiko Udala Urola Erdiko Mankomunitatearekin batera, eta prozedura berriari ekiteko data ere jarri da; 2018ko urtarrila. Hil hasieran beharrezko material guztia banatuko da, hau da, zalantzak argitzeko hitzegia, txipa, organiko kuboak...

Sistema berria 3 pausotan ezarriko da. Batetik, herriguneko sistema ezarriko da; bestetik landa eremu eta merkataritza arlokoek euren berezitasunak izango dituzte; eta azkenik, industrialdean ere berezia izango da.

Jarraian, gunek bakoitzaren xehetasunak;

URTE HASIERAN BEHARREZKO MATERIAL GUZTIA BANATUKO DA; ZALANTZAK ARGITZEKO HIZTEGIA, TXIPA, 5. EDUKIONTZI

1 HERRI GUNEA



aurrera pauso berria

Hona hemen herriguneko bilketa sistemaren xehetasunak:

- 60 bilketa gune izango dira herrian zehar. Gune hauek zeintzuk izango ziren azaro hasieran eman zen jakitera eta etxebizitza bakoitzeko bizilagunek egokitutako gune horretan bakarrik utzi ahal izango dituzte hondakinak. Hori bai, nahi denean eta nahi den guztietan utzi ahalko dira hondakinak, mota bakoitzari dagokion ontzian.
- Edukiontzi marroi eta grisak itxita egongo dira eta txartel bidez bakarrik ireki ahal izango dira. Etxebizitza bakoitzari txartel bakarra emango zaio edukiontzi hauek irekitzeko, baina bigarren txartela lortzeko aukera izango da AZPEITIA TXARTELA aktibatuz gero. Edo beste aukera da, 3 euro ordaindu eta bigarren txartela jaso.
- Gainontzeko edukiontziak (beira, papera eta plastikoa) irekiak egongo dira beti eta beraz, ez da txartelik beharrik izango mota hauetako hondakinak botatzeko.
- Hondakin bilketa sistema berrirako beharrezkoa izango den material guztia (txartelak, ontziak, zalantzak argitzeko hiztegiak...) urtarilaren hasieran banatuko da eta hil amaieran, martxan jarriko da sistema berria.



EDUKIONTZI MARROIA
HONDAKIN ORGANIKOA



EDUKIONTZI GRISA
BIRZIKLATU EZIN DAITEZKEEN
HONDAKINAK SOILIK.



EDUKIONTZI URDINA
KARTOIZKO ONTZIAK ETA PAPERA.



EDUKIONTZI BERDEA
BEIRAZKO BOTILAK, POTEAK ETA FLASKOAK.



EDUKIONTZI HORIA
PLASTIKOZKO ONTZIAK, METALEZKO ONTZIAK
ETA BRIK ONTZIAK.





Landa eremuan EKARPEN GUNEETAN utzi beharko dira hondakinak gaika sailkatuta. Gune hauetan edukiontzi urdin, hori, berde eta grisak bakarrik egongo dira. Hondakin organikoa aldiz, ez da bilduko eta bakoitzak bere lurretan konpostatu beharko du.

OHARRAK;

- Lumak eta animalia txikien (oilaskoa, untxia...) tripak konpostatu daitezke.
- Beharrezko material guztia eman eta azalpenak emateko, Urola Erdiko Mankomunitateko adituak etxez etxe pasako dira.

Landa eremuko hondakin berezien zerbitzuari dagokionez, jarraian Urola Erdiko Mankomunitateak eskaintzen dituen aukerak;

ZER	ZEIN	KONTAKTUA	NOIZ
Bolumen handiko trasteak	EMAUS	tel 656 789 574	Eskaripean
Hildako animaliak	GANADUA BILTZEN	tel 943 112 348	Eskaripean
Siloko plastikoa	URKOME	tel 943 816 500 e-posta:urkome@urkome.eus	Hilero 2 arteartetan

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN GARBIGUNEAK



Hondakin bereziren bat sortzen duten edota hondakin asko sortzen duten Azpeitiko merkatariei eta ostalariei puntuz puntu bilduko zaizkie ondorengo hiru frakzio hauek; organikoa, errefusa eta kartoia. Gainontzeko hondakinak, beira eta plastikoa, dagokien edukiontzietara bota beharko dituzte.



Industrialdean ere puntuz puntu bilduko dira hainbat hondakin. Izan ere, industriak sortzen duen hondakin berezia eta kantitatea ikusirik, sistema berezia ezartzea adostu da. Honela, kartoia, plastiko bilgarria, plastiko gogorra, egur garbia, organikoa, ontzi arinak eta errefusa atez ate bilduko zaie. Enpresek lantoki barruan izango dituzte euren edukiontziak eta dagokien egun eta orduan atera beharko dituzte kanpora.

AZPEITIA ETA HAZPARNE; INOIZ BAINO GERTUAGO

Bi herrien senidetzak 30. urteurrena ospatu duenean, udalerrien eta ordezkarien arteko harremana indartsu dago eta elkarlaneko hainbat pauso ematen jarraitzen dute



Aurtengo urtea, 2017, berezia eta garrantzitsua izan da Azpeitia eta Hazparneren arteko senidetzarako. Bi udalerrien arteko akordioak 30 urte bete ditu eta azken urteetako harreman apalaldiarekin amaitzeko asmoz, egungo Udalak, lanketa berezia egin du erlazioa indartzeko.

Hala, ekonomia edota kultura arloan pauso handiak ematea lortu dira. Batetik, bi herrietako industriak senidetzeko aukerak aztertzen hasiak dira. Uztailean, Azpeitiko Udaleko, enpresetako eta eragile desberdinetako ordezkariak Hazparnen egoitza duen Lauak aeronautika enpresan izan ziren. Bisitaren helburua “gure herriko enpresek Hazparnen dituzten

aukerak lantzea” izan zela adierazi du Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateak eta zentzu horretan, aurrerantz aurreratu du.

Era berean, kultura arloan ere ekimen nabarmenak egin dira. Urtarriletik hasita, Azpeitia eta Hazparne artean dauden 80 kilometro inguruak oinez egiteko aukera izan da Lagun Onak Mendi Bazkunearen eskutik. Sei etapatan banatuta egin zen ibilbide osoa eta arrakasta handia izan zuen, herritar ugariaren parte hartzeari esker.

Senidetzea sendotzeko azken pausoa, irailaren 23an eman zen. Urteurrena ospatzeko eguna antolatu zen Hazparnen. Dantza, musika eta bazkariak gain, Azpeitiko Udalak Done Jakue kaleko Gernikako Arbolaren kimua eraman zuen senidetzaren baitan bertan landatzeko. 2018 urtean Azpeitian egingo da senidetzaren festa.

**AZPEITIKO UDALAK
DONE JAKUE KALEKO GERNIKAKO
ARBOLAREN KIMUA ERAMAN
ZUEN BERTAN LANDATZEKO**



ETXEBIZITZA PREMIARI AURRE EGITEKO, URRATS BERRIA

BI AZTERKETEK ERAKUTSI DUTENEZ, 200 ETXEBIZITZA INGURU BEHAR DIRA AZPEITIAN ETA UDALAK ERAIKIN ZAHARRAK BIRGAITU ETA ALOKAIRU SOZIALA SUSTATZEKO NEURRIAK HARTUKO DITU



Etxebizitza politika berriaren urrats gehiago ematen ari da Azpeitiko Udala. Izan ere, etxebizitza hutsetatik abiatuta egin nahi du Udalak herriko etxebizitzaren inguruko politika berria. Eta bide horretan doa azken urteetan, Josu Labaka zinegotziak agertu duen bezala: “Azken urteotan neurri desberdinak hartu ditugu etxebizitza hutsak merkatura ateratzeko asmoz”.

UDALAK HARTUTAKO ERABAKIEI ESKER, 84 ETXEBIZITZA ALOKATU DIRA, ERDIAK AZPEITIKO ALDE ZAHARREAN

Horren adibide garbienak dira etxebizitza hutsei Udaletik jarritako Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren erreka goa eta etxebizitzak alokatzeko ematen diren diru laguntzak. Gainera, hartutako neurri horiek emaitzak eman dituzte dagoeneko, izan ere 84 etxebizitza alokatu dira aipatu laguntzen bidez, erdiak inguru Azpeitiko alde zaharrean.

Baina neurri horiez gain “beste pauso” bat eman nahi duela Azpeitiko Udalak aitortu du: “Neurriak hartu ditugu, baina haratago joan nahi izan dugu. Herriarren iritzia, nahi eta beharrak zeintzuk ziren jakin nahi genuen, eta horregatik egin dugu azterketa hau”.

Honela, Azpeitiko etxebizitzaren inguruko azterketak bi zati ditu, alde

batetik datu objetiboak gurutatu dira, eta gaur egungo datuez gain, etorkizuneko prospektiba edota izan daitekeen tendentzien aurreikuspena egin da; beste aldetik, berriz, herriko 708 laguni inkesta egin zaie telefonoz deituta, beraien nahi, behar eta iritzien berri izateko.

“Ezinbestekoa izan da eta da Azpeitiko Udalarentzat garrantzi-

tsuak izan daitezkeen erabakietan herritar guztien parte-hartzea sustatzea. Herriarren iritzia jaso ditugu, horiek aztertu eta herritarrek nahi duten norabidean lan egitea dagokio orain udalari. Azterketa horiek ondo aztertzen ari gara. Azterketa horietatik abiatuta hartuko ditugu-eta etorkizuneko erabakiak”, azaldu du Aitor Bereziartua zinegotziak.



ETXEBIZITZEN AZTERKETA, HERRITARREI GALDETUTA

Etxebizitzaren inguruko ikerketa osatzeko, herritarrekin zuzeneko inkestak egin ditu Iñaki Yurrebaso soziologoak. Helburua garbia izan da, iritzia eta ekarpenak jasotzea etorkizunean etxebizitzaren inguruan hartu beharreko neurriak zeintzuk diren identifikatu eta aurrera eramateko.

Azpeitiko 700 etxebizitza aukeratu ziren ausaz, eta etxe horietako bizilagunei beren iritzia eskatu zitzaizkien.

AZTERKETA EGITEKO AZPEITIKO 700 ETXEBIZITZA AUKERATU ZIREN AUSAZ ETA ETXE HORIETAKO BIZILAGUNEI BEREN IRITZIA ESKATU ZITZAIEN


Azterketa egiteko egindako galderei dagokionez, etxebizitza horretako beharren edo nahien inguruko galderak egiteaz gain, orokorrean, herritarrei Azpeitiko etxebizitza beharren inguruko galderak ere egin zitzaizkien.

Azpeitiko etxebizitzaren inguruko inkesta horretan jasotako emaitza nagusiak laburtuta jaso ditugu eta jarraian ezagutu daitezke:

1. HERRITARREN BEHARRAK

Iñaki Yurrebaso soziologoak zuzendutako inkestaren arabera, gaur egun herriko gazteen artean 371 lagun inguruk dute lehen etxebizitza eskuratzeko premia. Horietatik 108 bakarrik joango lirateke bizitzera, 78 bikotean eta 39 lagunekin; hori dela eta 225 etxebizitza beharko lirateke behar horri erantzuteko.

Lehen etxebizitza eskuratu baina familiaren beharrei erantzuteko etxebizitza premia ere adierazi dute 110 familiakidek.




225 etxebizitza beharko lirateke eskuratze premia osoari erantzuteko

2. ETXEBIZITZAREN GARRANTZIA

Azpeitiarren %99,7arentzat etxebizitza duin eta egokia izatea garrantzitsua edo oso garrantzitsua da. %4,2arentzat gairik garrantzitsuena da eta %62,3arentzat larrienetakoa. %12arentzat herrian etxebizitza desagokietan bizi diren jende asko dago eta %52,4arentzat baten batzuk bizi dira.

Etxebizitza beharra duten gazteak zenbat diren galdetuta, gehiengoak, %92,7ak asko edo dezente direla uste dute.

ETXEBIZITZA ARAZOAREN LARRITASUNARI BURUZ




3. UDALAREN POLITIKAK

Udalak orain arte abian jarritako politiken eta Udalak arazo honi aurre egiteko hartu beharreko neuriez galdetuta, administrazioak etxebizitza hutsak merkaturatzera bultzatzeko lan egitearekin ados edo oso ados dago %85,9a. %74,3ak, gainera, Azpeitiko Udalak horretarako hartutako ildoarekin ados edo oso ados dago.

Gehiengoak administrazioak babes ofizialeko etxebizitzak eskaini behar dituela uste du, baina gehiengo horretako %15,8ak aldiz, guztiak errentan izan beharko luketela uste dute; hauetatik %54ak gehienak errentan eta %25,5ak gehienak jabetzan.

Bestetik, etxebizitza tutelatu edota gazteei zuzendutako eredu komunitario batez galdetuta ere, herritarrak eredu berrien aldeko iritzia erakutsi dute.

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK ERRENTAN EDO JABETZAN ESKAINI BEHARKO OTE LIRATEKEEN



4. 2008-2016 IRITZI ALDAKETA

2008 urtean egin zuen Azpeitiko Udalak etxebizitza beharren inguruko azken inkesta, eta zortzi urteko epealdi honetan hainbat aldaketa nabarmen eman direla ohartu dira:

- Subjektiboki, larritasuna galdu du etxebizitzaren arazoak. Beste arazo batzuk larriagotu dira eta.
- BOEtan jabetzaren alde egiten zuten gehienek 2008an; orain alokairuaren aldekoek hartu diete aurrea.

Etxebizitza premiak ere behera egin du. 2008an 528koa zen etxebizitza beharra eta gaur egun 225koa. Horretarako hainbat arrazoi daudela uste du Yurrebasok: “Krisiak berak premia hori apaltzea ekarri du, besteak beste”.

	2008	2016	Hazkunde absolutua	Hazkunde erlatiboa (%)
Aldaketa premia duten familiak	165	110	-55	-33,3
Aldaketa premia duten familietan bizi diren herritarrak	638	239	-399	-62,5
Eskuratze premia duten herritarrak	528	371	-157	-29,7
Aldaketa-eskaria	73	25	-48	-65,8
Eskuratze-eskaria	278	145	-133	-47,8
Eskuratze-premia asetzeko behar diren etxebizitzak	389	225	-164	-42,2

Iturria: Etxebizitza premia Azpeitian, 2008 eta 2016ko inkestak.

GAZTEEI ZUZENDUTAKO ALOKAIRU SOZIALERAKO ETXEBIZITZAK EGINGO DIRA ESKLABETAKO ERAIKINEAN

Gazteei zuzendutako etxebizitza politika berriaren hurrengo pausoa eman du dagoeneko Udalak. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin erdietsi duen hitzarmenari esker, alokairu sozialeko 45-50 etxebizitza eraikiko dira Azpeitian.

Etxe hauek Esklabetako eraikinaren alde batean, elizaren ondoan eta jolastokiaren atzean dagoen eraikinaren zatian kokatuta egongo dira.

**PROIEKTUAK 3.620.000
EUROKO AURREKONTUA DU
ETA ETXEBIZITZAK 2020 URTE
AMAIERARAKO PREST IZATEA
AURREKUSTEN DA**

Udalak urriko udalbatzarrean onartu zuen hitzarmena egitea, eta hurrengo pausoa Etxebizitza Sailari dago; hau da, akordioa sinatzea eta proiektua martxan jartzeko izapideak egitea. Proiektua gauzatu eta etxebizitzak egin ahal izateko, Udalak Eusko Jaurlaritzari utziko dio eraikinaren zati hori. Izan ere, Esklabetako eraikina udalarena da 2013az geroztik, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra onartu baitzuen urte horretan. Alokairu sozialerako bideratuko den gunek guztira 7.951 metro koadro

ditu, eta etxebizitzak egiteaz gain, ingurua ere urbanizatuko da. Behin eraikina berrituta eta egokituta, Alokabideren bidez kudeatuko dituzte etxebizitza denak.

Proiektuak 3.620.000 euroko aurrekontua du guztira, eta dagoeneko martxan da obren proiektua idazteko lehiaketa. Alokairu sozialeko etxeen obren idatzizko proiektua eta lanen lehiaketa, berriz, 2018 urtean egingo dituzte. Behin proiektua eta lanen lehiaketaren prozesuak amaituta ha-

siko dira Esklabetako eraikina era-berritzen eta azkenik, alokairurako etxeak egokitzen.

Aurreikuspenen arabera, eta dena ondo joanez gero, 2020aren bukarako alokairuan jarriko dira etxebizitzak. Alokairuaren iraupenari dagokionez, berriz, Azpeitiko gazteek bost urterako alokatu ahal izango dituzte etxeak.

Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateak agertu duenez, proiektuaren helburua

bikoitza da; alde batetik, Esklabak eraikin historikoa edukiz betetzea eta beste aldetik, gazteen etxebizitza beharri irtenbidea ematea. "Azpeitiko ondare historikoa da Esklabetako eraikina, eta hura edukiz betetzea zen Azpeitiko Udalaren erronka nagusietakoa, hutsik egoteak ere gastua sortzen duelako. Honela, 2014 urtean hasi ginen Esklabak eraikina edukiz betetzeko proiektuez hitz egiten, eta ate asko itxi badira ere bide horretan zehar, etxebizitza sozialen proiektua gauzatzea lortuko dugu".



SOREASU, HERRIKO KULTURA ETA SORMENAREN GUNE

AZPEITIKO SORMEN GUNEAK LAU EREMU NAGUSI IZANGO DITU, DISZIPLINA GUZTIENTARA ZUZENDUTAKOAK, ETA LANAK 2019 URTE AMAIERARAKO BUKATZEA AURREIKUSTEN DUTE ARDURADUNEK

Azpeitiko kultur mugimendua sendotzeko pausoak ematen jarraitzen du Udalak. Urte eta erdiko lanketaren ondoren, Soreasuko Sormen Gunearen proiektua definitu da. Azken hamar urteotan pauso garrantzitsuak eman ditu kulturak herrian, eta datozen urteetan Soreasuko proiektua garrantzitsua izango da.

Horregatik, gardentasun osoz, azaldu du Udalak Soreasuko proiektua. "Proiektu garrantzitsua da guretzat, azken finean, datozen 10 urteetako kultur mugimenduaren mugari izango delakoan gaudelako", azaldu du Josu Labaka Kultura Batzordeburuak. Modu honetan, herriko kultur talde eta eragileek dituzten beharrei egokitutako proiektua gauzatuko da.

Dinamoaren guneak eta lehen solairuak osatuko dute Sormen Gunea. Arte disziplina guztietara bideratutako eremu bakoitzak espazio zehatz bat izango du, baina multifuntzionalitaterako aukera ugari ere eskainiko dituzte espazioek.

**PROIEKTUAREN
AURREKONTUA MILIOI BAT
EUROKOA DA ETA 2018KO
AURREKONTUETAKO ZATI BATEKIN
EHINGO ZAIE SOREASUKO LANEI**

Eraikinaren sarrera nagusiaren eskubian, gaur egun Dinamo dagoen lekua, leku multifuntzional gisa uztea proposatzen da, bertan sortzaileen lanak aurkezteko aukera ere eskainiz.


EPEAK

Onartu berri diren 2018 urteko aurrekontuetan garrantzia berezia izan du Soreasuko Sormen Guneak; izan ere, inbertsio nagusienetakoa izango da. Sormen Gunearen osatzeak 1,2 milioi euro inguruko inbertsioa eskatzen du, eta kostu maila handia da hori urtebetean egiteko.

Hori dela eta, bi fasetan egitea aurreikusten du Azpeitiko Udalak, 2018 urtearen hasieran exekuzio proiektua garatuko da, eta ondoren hasiko dira lehen faseko obrak.


SOREASU SORMEN GUNEAREN 4 EREMU NAGUSIAK

Lau espazio nagusi izango ditu sormen guneak: arte eszenikoena, hitzarena, irudiarena eta soinuarena. Horretaz gain, eremu desberdinetan lanean ari diren sortzaileak elkartzeko guneak eta erabilera anitzeko zein plaza funtzioa beteko duten espazioak ere aurreikusita daude. Espazio argitsua eta zabala diseinatu da. Gaur egun Dinamo osatzen duen gunea eta lehen solairuak osatuko dute sormen gunea. Eremu bakoitzak espazio zehatz bat izango du, baina multifuntzionalitaterako aukera ugari eskainiko dituzte espazioek.




ARTE ESZENIKOEN EREMUA

- Gune zabala.
- Altuera edo garaiera handikoa.
- Zurezko lurra.
- Gortinak izango ditu leihoetan.
- Bulegoa.




HITZEN EREMUA

- Topalekua izango du
- Bi bilera gela
- Bakarkako lanerako gelak



IRUDIAREN EREMUA

- Bi espazio nagusi bereiziko dira:
 - Argazkilaritzarako gunea (argazki estudio eta proiektzio gela osatutakoa)
 - Arte plastikoen tailerra.
- Biltegi bat ere egongo da materiala gordetzeko edota tresnak garbitzeko.



SOINUAREN EREMUA

- Udal Musika Banda eta Julian Barrenetxea abesbatzen lokalarekin osatuko da.
- Musikarien entseguetarako neurri ezberdineko lau gela egingo dira
- Grabaketa estudioa, platoa eta kabina teknikoa ere izango ditu.



ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO APUSTUAREKIN, KONTSUMOA GUTXITZEA HELBURU



Azpeitiko Udal eraikinetan kontsumo handiena eta beraz, garestiena, igerilekuak du. Azken urteetan urtas desberdinak eman dira kontsumoa murrizteko (geotermia ezartzeko lanak adibidez) eta udan abiatu ziren obrei esker, beste pauso garrantzitsua ematen da zentzu horretan.

“Uztailean hasi genituen lanekin batera, igerilekuaren kontsumo energetiko handia gutxitzeko abiatutako ibilbidean beste salto bat eman nahi dugu”, agertu du Estitxu Elduaien kiroletako batzordeburuak. Udal Gobernuak urteak daramatza eraginkortasun energetikoaren aldeko apustua egiten. Hala, igerilekuko kontsumoa gutxitzeko helburuarekin, Barrenetxeko ur termalak hartu eta igerilekuko ura berotzeko erabiltzeko proiektu berritzailea burutu zuen. “Apustu ausarta izan zen eraginkortasun energetikoaren alde

egindako hura, eta gustura gaude orain arte eman dituen emaitzekin. Eta orain, efizientzia oraindik eta gehiago hobetzeko beste obra batzuk egiten ari gara”, azaldu du Aitor Beziartua zinegotziak.

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO APUSTUAREKIN URTEAN 266.500 KWH GUTXIAGO KONTSUMITZEA ESPERO DU UDALAK

Lanek bi fase izango dituzte. Lehenengoa abian da jada eta

igerileku barruan eta kanpoan ari dira egiten, horma eta sabaia berritu, egonkurtu eta isolatzeko obrak dira. Lehen faseko lan hauek urte bukaerarako amaituta egongo dira. Era horretara, gaur egun galtzen den energiaren %26,7a ez galtzea aurreikusten da. Behin hori bukatuta, eta bigarren fase bezala, teilatuan plaka fotoboltaikoak instalatuko dituzte, kontsumitzen den energia %11,5ean gutxitzeko asmoz.

Energia berriztagarren aldeko apustuarekin, urtean 266.500 kWh gutxiago kontsumitzea espero du Udalak. Hau datuetara pasatuz gero, egindako inbertsioa 11 urtean amortizatuko du.

Lan guzti hauek 1.300.000 euroko aurrekontua dute, milioi bat eraikina berritzeko eta gainontzeko 300.000 euroak, berriz, energia berriztagarriak ezartzeko.

IKASTETXEEN BEHAR PEDAGOGIKOEI ERANTZUTEKO JOLASGUNEAK BERRITU DIRA



IKASBERRI

Azpeitiko Ikastola Ikasberrik kanpoko jolaslekuan umeak eta gaztetxoak egoki jolasteko leku faltaren aurrean, eraikinaren ondoan bizikletentzako egokitutako 250 metro karratuko lekuan egin dute jolaslekua. Gune berria 0 eta 6 urte bitarteko umeei zuzenduta dago bereziki, eta hauen garapena lantzeko espermentazioa, esplorazioa eta jolasean oinarrituta dago.



IRAURGI

Iraurgi Ikastetxeko Jesuitinetako eraikinaren atzekaldean zahartuta eta utzita zegoen aire libreko parkea berreskuratzeko lanak egin ditu Udalak. Zahartuta zegoen haur parkea kendu eta ikasleen ideiekin ikastetxeak egokitzeko prest utzi da. Iturria ere jarri da, etorkizunean ikasleentzat leku lasai eta erakargarria bihurtzea da helburua.



KARMELO ETXEGARAI

Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegaraik 2 eta 6 urte bitarteko umeen eraikinak dituen bi atariak birmoldatu dira. Udalak, ikastetxeak eta gurasoek elkarlanean burutu dute prozesua eta gune berriaren oinarri nagusia, elementu naturalak dira. Eraldaketaz gain, segurtasun neurriak ere hartu dira. Honela, haurren segurtasuna bermatzeko, eskailerak ezabatu dira beheko atarian.



UZTARO

Uztaro haurreskola kanpoko parkea ere berritu da. Bertako hezitzaileak jolasgunea berritu eta egokitu beharra zegoela ohartu ziren, izan ere, “parke txikia izanagatik ere, haurrentzat erakargarria eta arazoei irtenbidea ematekoa” behar zuen. Modu honetan, Azpeitiko Udalak 35.000 euroko aurrekontuarekin egindako lanei esker, helburua bete dela uste dute arduradunek.

Zatoz gu agurtzera!

12:15ean

Olentzero eta Mari Domingik San Martin egoitzakoen ongi etorria jasoko dute.

12:30ean

Kalejirari hasiera emango saio Artubia Etorbidean, San Martin Egoitzatik abiatuta.

Partehartzaileak: Itsasi, txistulariak, Musika Eskolako soinujoleak, Olentzero eta Mari Domingi idiak bultzatuko duten gurdian eserita, ondoan bi asto opariz bete-beteta beraiekin herritar gazteak su antortxeekin eta bukatzeko ikastetxeetako haurrak.

Ibilbidea: Artubia Etorbidea, Goiko Kalea, Plaza Nagusia, Enparan Kalea, Perez Arregi Plaza, Erdikale, Plaza Nagusia (geldiunea)

13:00etan

Plaza Nagusian.

- **OLENTZERO eta MARI DOMINGI**ren etorrera
- **Aurreskua** Itsasiko hurrek dantzatuta
- **Bertsoak**: Sebastian Lizasok
- **OLENTZEROREN** hitzak eta agurra
- **Abestiak** **OLENTZERO**ri eta gaztainak oparituko ditu.

*Oharra: Eguraldi txarra egingo balu ekitaldia Azoka Plazan egingo da.



azpeitiko udala
denon artean